

## Prensa dosierra

*Bizkaiko bertsolaritzaren oinarria indartzea du helburu nagusi Bizkaiko Taldekakoak. 2017an egin zen lehenengoz, eta bigarren edizioa izango du aurtengoa; 21 taldek eman dute izena, eta hiru fasetan jokatu da txapelketa; finala, maiatzaren 25ean izango da.*



- Sarrera
- Helburuak
- Taldeen osaketa
- Izena eman duten taldeak: aniztasuna
- Epailletza
- Gai-jartzailletza
- Egitura eta sailkapena; lehenengo fasearen zozketa
- Ariketak
- Datak
- Informazio bideak

## Sarrera

Bizkaiko Bertsozale Elkarateak Bizkaiko bertsolaritzaren ekosistema osoa, eskualdez eskualde, eta etenik barik elikatzeko helburua dauka. Baita, bertsogintzaren oinarria motibatatu, finkatu eta garatzea ere.

Helburu horiek lortzeko bidean eraginkortasuna handitu guran, Txapelketari buruzko gogoeta fasea hasi zuen Elkarateak 2015ean, eta besteak beste, taldekako txapelketa egitea erabaki zen.

Taldekakoaren bitartez oinarrian eragin gura da, hau da, bertso eskolak eta eskualdeak indartu gura dira. Horretarako, gune ludiko bat eskaini gura du Elkarateak. Taldekakoa giro informalean eta jai-giroan gauzatzea da helburua. Batez ere, bertsolari hasi berriei plazarako bidea erraztea, eta arrazoi desberdinengatik ohiko Txapelketan parte hartzeko motibaziorik ez daukatenei aukera desberdin bat eskaintzea. Horrez gain, antolatzaile, epaile eta gai-jartzaile berrien sorrera ere bultzatuko da. Eta zelan ez, eskualdeen arteko harremana sendotzea da asmoa.

Taldekakoaren irudia Malen Amenabar Larrañaga bertsolari eta ilustratzaileak egin zuen. Berak ere parte hartuko du taldekakoan.

## Taldekakoaren helburuak

Esan bezala, Taldekakoaren helburua Bizkaiko bertsolaritzaren oinarria eta, era berean, eskualdeak aktibatatu eta indartzea da.

Zehatz esateko, hurrengo taldeak dira indartu gura direnak:

- Bertso eskolak
- Talde teknikoak: gai-jartzaileak, epaileak, antolatzaileak.
- Bertsolariak: bereziki euren burua Bizkaiko Bertsolari Txapelketatik kanpo ikusten dutenak (hasi berriak, plazak utzita dituztenak...)
- Zaleak

## Taldeen osaketa

Taldeak, gutxienez, sei lagunekoak izango dira, nahiz eta 8-10 ingurukoak izatea gomendatzen den. Saio bakoitzean ondorengo lanak edo funtzioak egongo dira, kanporaketa bakoitzeko:

- 3 bertsolari
- 1 gai-jartzaile
- 1 epaile
- 1 laguntzaile

Taldeek, esan bezala, partaide gehiago ere eduki ditzakete, baina saio denetan egon beharko dute gutxienez sei lagunek goian aipatutako funtzioak betetzeko.

## TALDEAK

Guztira 21 taldek eman dute izena Taldekakoan, eta 200 parte-hartzaile inguruk parte hartuko du txapelketan.

Parte hartzaileen perfila anitza da oso: oso gazteak direnak, beteranoak, aspaldi bertsoetik aparte ibili direnak, hasiberriak, Bizkaiko Txapelkunak, Txapelketetan parte hartu dutenak, edo sekula parte hartu ez dutenak. Helburua aniztasun hori lortzea zen, eta lortu da.

Gainera, Bizkaiko eskualde guztietako ordezkariak dago (taulan, zehaztuta, herria edo eskualdea).

Hurrengoak dira Taldekakoan izena eman duten taldeak:

Taldearen izena	Herria edo eskualdea	Parte hartzaileak
Akerbeltzen Antxumak	Markina-Xemein	Maddi Ibaibarriaga, Eneko Arrate, Graxi Arregi, Irati Brabo, Jone Antsoetegi, Joseba Sololuze, Josune Aramendi, Nahia Ibarzabal, Naroa Loiola, Nerea Ibarzabal
Anubix!	Uribe Kosta	Paule Loizaga, Aritz Landeta, Peio Arondo, Naroa Torralba, Unai Mendiburu, Kerman Diaz, Arrate Illaro, Imanol Uria, Jon Amezaga, Beñat Lopez, Itxaso Paia
Aramotzetik Itxinera	Arratia	Iñaki Iturriotz, Illart Gumuzio, Igor Menika, Juanjo Respaldiza, Kattalin Burgoa, Olatz Urigoitia, Jesus Angel Santa Cruz, Irati Santa Cruz, Garazi Santa Cruz, Amaur Atxa, Maddi Zabalo
Basordako gorringoak	Uribe kosta	Xabier albizu landa "Txuri", Peru de Pedro, Jagoba Pereda, Mikel Albizu, Erlantz Ibarzurengoitia, Inge Beitia, Iñaki San Nikolas, Unai Larrazabal
Dolu gabe	Busturialdea	Koldo Gezuraga, Mikel Retolaza, Unai Agirre, Asier Galarza, Imanol Elgezabal, Jon Rementeria
Elorri	Deustu	Maite Sarasola, Ander Anakabe, Mikel Aiertzaguen, Gorka Contreras, Markel Baroja, Asier Urkiza, Gerizeti Zubiaurre, Ainhoa Laparra, Enare Muniategi
Estropozu	Arrigorriaga	Arkaitz Zipitria, Andere Molinuevo, Iker Garitagoitia, Karlos Molinuevo, Maider Altuna, Peio Molinuevo
Far westeko bertsolariak	Enkarterri-Ezkerraldea	Idoia Anzorandia, Txema Perez, Jon Martínez, Asier Alcedo, Ander Ucelay, Aitziber Bengoetxea, Patxi Arteagabeitia, Ander Ezeiza
Itallen	Larrabetzu	Jon Etxebarria "Txontxe", Peru Berazategi, Sergio Peña, Leire Etxebarria, Malen Amenabar, Antxon Ortuzar, Iskander Euba, Etxahun Lekue, Aitor Arrizubieta "Toko", Maripi Agirre
Itsosupetekuek	Busturialdea	Ander Elortegi, Eneko Aldana, Leire Garatzena, Aitor Etxebarriazarraga, Nagore Beitia, Iñaki Aurrekoetxea

<b>Koipelustre's</b>	<b>Abadiño</b>	Aitor Bizkarra, Txaber Altube, Bittor Altube, Ainhoa Urien, Beñat Gaztelurrutia, Igor Galarza, Jon Zialzeta, Ione Narbaiza
<b>Leioatik Leioara</b>	<b>Leioa</b>	Peru Vidal, Xabi Sainz de la Maza, Aitzol de Castro, Oier Iturralde "Atano", Inazio Vidal, Jon Ortiz Larrucea, Antxon Illaro, Alfonso Sardon Zabaleta, Beñat Vidal, Galder Bilbao "Txapi", Enara Gartzia, Elene Uribe
<b>Miotako bidelapurrak</b>	<b>Berriz-Elorrio</b>	Miren Amuriza, Ibai Guridi, Amaia Ugalde, Iruri Altzerreka, Gorka Lazkano, Joxe Garaizabal
<b>Otsoa &amp; Co.</b>	<b>Santutxu</b>	Ibon Ajuriagojeaskoa, Irati Erkizia, Garazi Navarro, Iker Uribarren, Oihana Bartra, Fernando Otsoa, Urtzi Urrutikoetxea, Joserra Bilbao
<b>Poto</b>	<b>Lekeitio</b>	Aissa Intxausti, Jon Garatea, Xabat Gallettebeitia, Ander Goikoetxea, Aitor Ruiz, Oier Azula, Aitzol Goitia, Aitor Arrizubieta
<b>Potojorran</b>	<b>Bilbo</b>	Ainhoa Markinez, Mikel Galarza, Joseba Barandiaran "Barandi", Javier Martínez "Guti", Ana Picallo "Single", Axier Goñi, Ainhoa Arregi "Ainho-ainho", Ander Altuna, Edu Castaños, Aitor Esteban "Garrote"
<b>Punta batekoak</b>	<b>Busturialdea</b>	Jon Arano, Iker Uriarte, Lurdes Ondaro, Beñat Bilbao, Ibai Amillategi, Roke Alberdi, Julen Karrion
<b>Taket</b>	<b>Mungia</b>	Jone Larrinaga, Aitor Esteban, Ibon Larrazabal, Mikel Goiriena, Asier Legarreta, Urtzi Oleaga, Garazi Mendoza, Jagoba Pereda
<b>Tosu bizirik</b>	<b>Uribe Kosta</b>	Josu Landeta, Gabi Basañez, Daniel De Miguel, Aitor Fernandez de Martikorena, German Kortabarria, Iñigo Kortazar, Eder Azaola, Andoni Ortega
<b>Tronperrieta</b>	<b>Durango-lurreta</b>	Eneko Abasolo "Abarkas", Ander Sarriugarte, Unai Iturriaga, Juan Mari Areitio, Gorka Pagonabarraga, Erika Lagoma, Ander Elorriaga, Iker Maguregi, Leire Vargas
<b>Zahar-alive</b>	<b>Busturialdea</b>	Julen Arzanegi, Onintza Enbeita, Inazio Gonzalo, Xabier Enbeita, Alain Cubero, Xabier Arriaga, Joseba Uribarri, Julen Ibarguengoitia

## Epailetza

Talde bakoitzak epaile bat edukiko du kanporaketa bakoitzean. Horrez gain, publikoaren iritzia ere kontuan hartuko da.

Beraz, saio bakoitza puntuatzeko hiru taldeetako epaileen balorazioa gehi publikoaren balorazioa hartuko dira kontuan. Saio bakoitzaren ondoren, hiru taldeetatik, ze taldek egingo duen aurrera erabaki beharko dute denek artean.

## Gai-jartzailletza

Saio bakoitzeko gaiak hiru taldeetako gai-jartzaileen artean pentsatuko dituzte.

Aurkezle beharra kantatzen ari ez den taldeko gai-jartzaileak egingo du.

## Egitura eta sailkapena. Lehenengo fasearen zozketa.

Hiru fase edukiko ditu Taldekakoak: 1. fasea, 2. fasea eta finala.

Kanporaketa gehienak hiru taldeka jokatuko dira, eta talde batek egingo du hurrengo fasera saltoa. Kanporaketa bakoitzean hiru saio labur izango dira: lehenengo taldea bigarrenaren kontra, bigarrena hirugarrenaren kontra, eta hirugarrena lehenengoaren kontra. Saio bakoitzetik talde batek egingo du aurrera.

Hona hemen, lehenengo faseari dagokionez zozketak eman duena:

1. fasea		2. fasea		finala	
SAIOAK	TALDEAK	SAIOAK	TALDEAK	SAIOAK	TALDEAK
1	Leioaik Leioara	1		1	
	Taket				
	Basordako Gorringoak				
2	Estropozu	2			
	Zahar alive				
	Poto				
3	Elorri	3			
	Far Westeko bertsolariak				
	Potojorran				
4	Otsoa & Co.				
	Aramotzetik Itxinara				
	Miotako bidelapurrak				
5	Tronperrieta				
	Tosu bizirik				
	Anubix!				
6	Itallen				
	Akerbeltzen Antxumak				
	Dolu gabe				
7	Itsosupetekuek				
	Koipelustre's				
	Punta batekoak				

Bigarren fasera zazpi talde pasatuko dira. Hiru saio izango dira, saio bat hirukoa eta beste saio biak talde bikoak.

Finalera hiru talde pasatuko dira.

### Lehenengo fasearen saioak

TALDEAK		SAIOAK
A	Tronperrieta	<b>Otsailak 24, domeka</b>
B	Tosu bizirik	Algorta
C	Anubix!	17:00 Patxeko taberna. 18:00 Villamonte taberna. 19:00 Saniko taberna.
A	Leioa Leioara	<b>Martxoak 1, barikua</b>
B	Taket	Leioa
C	Basordako Gorringoak	
A	Elorri	<b>Martxoak 10, domeka</b>
B	Far Westeko bertsolariak	Portugaletxe
C	Potojorran	12:00 (merkatuan hasita)
A	Estropozu	<b>Martxoak 15, barikua</b>
B	Zahar-alive	Errigoiti
C	Poto	
A	Itsosupetekuek	<b>Martxoak 17, domeka</b>
B	Koipelustre's	Gernika-Lumo
C	Punta batekoak	
A	Itallen	<b>Martxoak 22, barikua</b>
B	Akerbeltzen Antxumak	Markina-Xemein
C	Dolu gabe	
A	Otsoa & Co.	<b>Martxoak 23, zapatua</b>
B	Aramotzetik Itxinera	Igorre
C	Miotako bidelapurrrak	

## Ariketak

Talde antolatzaileak ariketen proposamen bat garatu du, baina proposamen hutsa da. Hau da, kanporaketa bakoitzean parte hartzen duten hiru taldeen esku geratuko da ariketak adostea, hau da, hiru taldeak ados ipintzen badira, beste ariketa batzuk egiteko aukera daukate.

### Ariketen proposamena:

- Hasierako agur puntuagarria: saio bakoitzean talde bakarraren agurra (gehienez 3 minutu). Adibidez:
  - A-B saioan A taldearen egurra
  - C-A saioan C-ren agurra
  - B-C saioan B-ren agurra
- 8H ofiziotan (3 bertso); Talde bakoitzetik bat
- 4 oinak (bertso 1) eta azkena emanda (bertso 1); Talde bakoitzetik bat
- 8t ofiziotan (3 bertso); Talde bakoitzetik bat
- Bakarka (2 bertso); Gehienez, 10H. (gaia, objektua, hitza, kanta emanda). Talde bakoitzetik bat
- Potokumeak. Taldeko 3ren artean. Bertsolari batek bertsoa bota ahala, beste bertsolari biek, txandaka, oinak aurreratuko dizkiote, 8 oin (bertso 1). Gaia, objektua, hitza edo kanta emanda.
- Puntuka. Talde bakoitzetik bat. 8t. 4 bertso osatu arte (bakoitza birritan hasi).
- Amaierako agur puntuagarria. Gehienez, 10H. Talde bakoitzetik bat

## Datak

Lehenengo fasea martxoaren 25era bitarte jokatu da. Data horretan jakingo da zein taldek osatzen duten hurrengo fasea. Bigarren fasea martxoaren 27tik maiatzaren 13ra izango da. Finala maiatzaren 25ean jokatu da, Bizkaiko eskolarteko finalarekin batera.

## INFORMAZIORAKO BIDEAK

Txapelketari buruzko informazioa hainbat bidetatik eskura daiteke.

- Webgunea: [www.bertsozale.eus/bizkaia/taldekakoa](http://www.bertsozale.eus/bizkaia/taldekakoa)
- Sare sozialak:
  - Facebooken Bizkaiko Bertsozale Elkarteen orrialdea.
  - Twitter: Bizkaiko Bertsozale Elkartea (@bbertsozale) #taldekakoa
  - Instagram: Bizkaiko Bertsozale Elkartea
- Kontaktua: [bizkaia@bertsozale.eus](mailto:bizkaia@bertsozale.eus)